

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAK ETA EL CORREO EGUNKARIAK GARRAIO PUBLIKOARI BOTATAKO BEGIRADA ONENAK SARITU DITUZTE

- **Ekitaldi berean Bizkaiko garraibide publiko bateko langile baten ibilbide profesionala saritzeko ikurra entregatu zitzaion.**

Bizkaiko Garraio Partzuergoak bi ekintza garatu ditu 2014ko apirilean eta maiatzean Bizkaiko garraio publikoa erabiltzea sustatzeko.

Batetik, El Correo egunkariarekin lankidetzan **argazki lehiaketa** bat antolatu, Bizkaiko bizilagun guztiei irekia. Bestetik, **aintzatespen publiko bat** antolatu da etengabe hobetzearen alde egunero egindako lanagatik nabarmendutako Bizkaiko garraio publikoko zerbitzuetako langile bat saritzeko.

Garraio publikoari begirada bat

“**Bizkaiko garraio publikoari begirada bat**” argazki lehiaketari dagokionez, saria Bizkaiko garraio publikoaren irudia hobekien helarazten zuten garraio publikoko erabiltzaileentzako sariketa izan da, eta hiru ikuspuntu baliatu dira: garraio iraunkorra, nire bizitza garraio publikoan, eta gure garraio publikoa.

Garraio iraunkorraren kategorian, Judit del Vallek ateratako “Ibilaldia hodeietan zehar” irudiak jaso du saria. Nire bizitza garraio publikoan kategorian, berriz, saria “Autoan ezingo nuke” irudiak irabazi du, Ángel Martínek egindakoa. Eta hirugarren kategorian, Gure garraio publikoa izenekoa, epaimahaiaren aipamena Iker Otaolaren “Autobus fantasma” irudiak eskuratu du.

Horrez gain, lehiaketak parte hartzea ere saritu du, eta Víctor Aceboren “Irakurketa garaia” argazkiari eman dio sari hori; izan ere, gainerako parte hartzaile guztien artetik argazki horri egokitu zaio, zozketaz.

Lehiaketak iraun duen tartean 380 argazki baino gehiago jaso dira.

Irabazle guztiek Ipad Mini bat eta 90 euroko saldoa duen Barik txartel bat jaso dute, haien joan-etorrietan Bizkaiko garraio publikoa erabiltzen jarrai dezaten; sariak BGPko zuzendari kudeatzaileak eta Antonio Barrenaun El Correo egunkariko arduradunak banatu dituzte.

Garraio publikoan lan bat baino gehiago

Raúl González Coto langilea aukeratu dute “Garraio publikoan lan bat baino gehiago” aipamena jasotzeko. Aipamen hori jasotzeko hautagaiak iradokitze eskatu zien BGPko garraibide desberdinei, eta proposamen guztien artetik Raúl González izan da aukeratutakoa. TCSA garraibideko gidaria da, eta segurtasun ekintzak, bezeroari arreta eskaintzeko ekintzak edota garraio publikoa hobetzeko operazio lanak egin ditu modu proaktiboan; horrez gain, etengabe egin ditu ekarpenak garraio sistema hobetzeko, eta Bizkaiko garraio publikoko erabiltzaileekin duen inplikazioa urte hauetan guztietan erakutsi du (10 urte baino gehiago daramatza gidari gisa lanean)

Langileak berak eta garraibidearen ordezkari Juan Santiagok Martín Ballesteros pintorearen lamina bat jaso dute BGPko zuzendari kudeatzaile Manu Tejadaren eskutik, lan horren aintzatespen publiko gisa.

Garraio publikoa Bizkaian:

Gogoratu behar da urtean zehar 160 milioi bidaia baino gehiago egiten direla Bizkaiko garraibide publikoetan. Zalantza izpirik gabe, horrek ekarpen nabarmena egiten die ekonomiari, ingurumenari eta, batez ere, lurralde historikoko pertsonen bizi kalitatea hobetzeari.